

**GREEN
BOTTLE**



'Freskagarriak kontsumitzeko ingurumenarekin errespetutsua den alternatiba'

BALIO PROPOSAMENA

Gure enpresak freskagarriak kontsumitzeko ingurumenarekin errespetutsua den alternatiba eskaintzen du. Bezeroei balio kualitatiboa nahiz kuantitatiboa eskaintzen diegu. Balio kualitatiboari buruz hitz egiten dugu botilaren diseinu berritzailea eta honen izaera ekologikoa kontuan hartzen dugunean. Bestalde balio kuantitatiboari dagokionez beste gure lehiakideen freskagarrien aldean merkeagoa izango da.



Gure balio proposamena hiru gako nagusitan oinarritzen da:

1. INGURUMENAREKIKO ERANTZUKIZUNA

GREENBOTTLE erabili eta botatzeko edukiontzietan datozen freskagarri tradizionalen ordeko produktua izateko sortua da.

Egunean freskagarri lata bat erosten duen unibertsitateko ikasle batek gutxi gorabehera 20kg lata zabor sortuko ditu unibertsitatean pasako dituen lau urteetan. Bestalde, aluminioz egindako ontzi hauek izugarritzko energia xahutzen dute beraien fabrikazioan eta ongi birziklatzen ez badira 10 urte irauten dituzte degradatu gabe.

Klima aldaketa guztioi eragiten digun arazo bat dela jakinik, eta berotegi efektu gasen emisioa murriztu nahian GREENBOTTLE alternatiba berdea aurkezten dugu. 100% material birziklatuz egindako botila berrerabilgarri eta iraunkorra.

2. PREZIO LEHIAKORRA

Gure produktuaren erabilera epe luzera freskagarri tradizionalak erostea baino merkeagoa izango da. Nahiz eta hasierako inbertsioa handiagoa izan (botila bera erostean egindakoa), gure freskagarri makina eksklusiboak

erabiliaz, bezeroa inbertsioa amortizatzen joango da hauetan botila birkargatzea benetan oso merkea izango da eta.

3. EGOKITASUNA

GREENBOTTLE-ek unibertsitatean bertan kokatuta egongo diren makinak eta botila bilketa-puntuak ipiniko ditu bezeroen zerbitzura. Gure produktua erosteko eroso da, prozesu azkar eta itxaronaldirik gabekoa izateko diseinatua. Horrela posible da ikasgai batetik besterako aldaketetan botila birkargatzea edo liburutegitik gehiegi urrundu gabe freskagarria lortzea. Gainera, GREENBOTTLE makinetan saldutako freskagarriek ez dute inolako azukre gehigarririk eta osagai naturalekin eginga daude.

Konklusioan, GREENBOTTLE freskagarri tradizionalak baino merkeagoa, garbiagoa, eskuragarriagoa eta berdeagoa den alternatiba da.